

berria

2009/04/09

Gernika. Euskal Herria Museoa "Nork bere Gernika"

Nestor Basterretxearen arabera, zaila da Gernika-rik egitea Picassok berea egin ondoren. Haatik, nork bere Gernika duela uste du artistak, nork bere gerra, bere bonbardaketa, deserria, oinazea... Nork berea. Eta Basterretxeak ere badu berea.

1924an Bermeon jaioa, 12 urte besterik ez zituenean utzi behar izan zuen Bizkaiko kostako herria. 36ko gerrak harrapatu zuen aurrena, eta II. Mundu Gerrak gero. Donibane Lohizunen babestu zen hasieran. Eta Argentinan gorde zen, ondoren. Gerra eta erbestea dramatikoak dira, baina esperientzia handia dira aldi berean, bizitza beste modu batean ikusten laguntzen dizute.

Minak baldintzaturiko ikuspegi hartatik sortu zituen Nestor Basterretxeak Gernika bildumako obrak, akrilikoak eta eskulturak. 1986an egin zituen, Gernikako bonbardaketaren 50. urtemugari begira. Eta horietako batzuk jarri dituzte ikusgai orain Gernika-Lumoko Euskal Herria museoko ganbaran: zazpi margolan eta eskultura bi.

Bonba batek birrinduriko baserria gogoan hartuta eratu zituen Gernika saileko ederlanak Basterretxeak. Zartaturiko baserria obrarik obra ageri da; baserri horretako materialak azaltzen dira: egur zatiak, sukaldeko tresnetako kobrezko puskak, lurra lantzeko lanabesak... Bonbardaketak eragindako anabasari ordena eman nahi izan nion; hala bada, lan batzuk beste batzuk baino figuratiboagoak dira. Abstrakzioaren arauari segika sortu dituen lanak, nolanahi ere, figuraziotik gertu daudela pentsatzen du Basterretxeak. Baserriko materialak aurki daitezke arretaz begiratzuz gero.

Hogei bat lanek osatzen dute Basterretxearen Gernika bilduma. Bilboko Windsor kulturgintza galerian aurkeztu zituen lehendabizikoz, 1987an. Harrezkero, gutxitan izan du lanak erakusteko parada. Horregatik, pozik dago Basterretxea. Gernika leku berezia da euskal herritar guztiontzat. 1937ko apirilaren 26an jazo zen dena. Italiako Aviazione Legionariko armadako hiru hegazkinek hamabi bonba jaurti zituzten Gernikan. Alemaniako hemeretzi bonba hegazkinekin batera eraso zioten Gernikako herriari. 3.000 tona lehergailu erabili zituzten; orotara, 5.000 bonba zartarazi zituzten. Hogei ehiza hegazkinek, gainera, herritarrak eta eraikinak metrailatu zituzten. Condor eta Aviazione Legionariko armadek Gernikako zubia suntsitzeko agindu zehatza zuten. Alabaina, 3.600 metrotik jaurti zituzten bonbak, ezker-eskuin. Eta, horrenbestez, zubia ez ezik, herri osoa txikitu zuten.

Artetari, Picassori baino lehen

Frankistek eragindako sarraskiagatik baino gehiago, Picassorengatik da ezaguna Gernikako bonbardaketa, Basterretxearen iritziz. Artistari eskerrak zabaldu da lau haizeetara frankistek hemen egin zutena.

Haatik, artistak badu pena bat: Picassori baino lehenago, Aurelio Artetari eskatu zioten Gernikako bonbardaketa gogoratzeko margolana egiteko. Baina Artetak ezetz esan zuen. Miarritzen zegoen eta Amerikara, Mexikora joateko txartelak hartuak zituen. Bere bizitzako lana izan zitekeen baina.... Garai hartan Parisen zen Basterretxea. Eta orduan erbestean zen Jose Antonio Agirre lehendakariarekin eta aita zuenarekin joan zen Nazioarteko Erakusketa hartuko zuen Espainiako pabiloia ikustera. Hemen mural bat jartzen zuen paretetako batean. Gernika bonbardatu zuten, artean. Eta erakusketaren edukiaren gaineko ardura zutenek Gernikari buruzko obra euskal artista batek egin behar zuela erabaki zuten. Jose Maria Uzelaik, Bermeoko pintore zoragarriak Artetari esatea pentsatu zuen. Miarritzen zegoela bazekien, azaldu du Basterretxeak.

Gozotasunez mintzatzen da Basterretxea; samurtasun handiz oroitzen ditu joandako garaietako kontuak, zirrara eragiteraino. Eta amorratuta salatzen du arte liburuaren oharkabetzea: Gernikari buruzko obra Artetari eskatu zioteneko ez dute aipatzen. Ezta Madrilgo Reina Sofian dauden liburuek ere. Are gehiago: liburuetako batean esaten da aspaldi eskatu ziotela Picassori Gernikari buruzko obra. Nola esan dezakete halakorik? Bonbardaketa gertatu aurretik nola eskatuko zioten, bada, horren inguruko lanik? Leku guztietan ditugu etsaiak, argi utzi dute....

Margolanaren historia gertatu bezala kontatu beharko luketela defenditu du artistak. Eta duda-mudarik gabe esan du Picassoren Gernika XX. mendeko obrarik onena dela.

ERAKUSKETA

Izenburua. ' Nestor Basterretxearen Gernika ' .
Lekua. Euskal Herria Museoa. Gernika-Lumo.
Noiz arte. Abuztuaren 31 arte.

Irune Berro